



AGINDUA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, "BILBOKO, DONOSTIAKO ETA VITORIA-GASTEIZKO GOTZAINDEGIAK" ENTITATEEI DIRULAGUNTZA IZENDUN BANA EMATEKO DENA 2023. URTEAN

ORDEN DEL CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A CADA UNA DE LAS ENTIDADES "OBISPADOS DE BILBAO, SAN SEBASTIÁN Y VITORIA-GASTEIZ" EN EL AÑO 2023

Tramitagune: AAAA\_ORD\_AY\_1248/23\_11

Tramitagune: AAAA\_ORD\_AY\_1248/23\_11

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legeak esaten duenari jarraituz hauxe,

Según la Ley 15/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023,

#### EBAZTEN DUT:

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.-** BILBOKO, DONOSTIAKO eta VITORIA-GASTEIZKO entitateei dirulaguntza izendun bana ematea, guztira 92.000 eurokoa, elizaren jabetzapeko dokumentu ondarea digitalizatzeko, ondoren zehazten den taulan adierazitako ehunekoaren arabera:

**Primero.-** Conceder sendas subvenciones nominativas a las entidades OBISPADOS DE BILBAO, SAN SEBASTIÁN y VITORIA-GASTEIZ por un total de 92.000 euros, para la digitalización del patrimonio documental de titularidad eclesiástica, conforme a los porcentajes que se indican en el siguiente cuadro:

| GOTZAINDEGIA/<br>OBISPADO | IFZ/NIF   | %   | ZENB./IMP.<br>(€) | KONTU-SAILA/<br>PARTIDA PRESUPUESTARIA |
|---------------------------|-----------|-----|-------------------|--|
| Bilbo/Bilbao              | R4800011A | %40 | 36.800            | 1001111113 1.45143.45200 2019/002658   |
| Donostia/San Sebastián    | R2000011C | %33 | 30.360            | 1001111113 1.45143.45200 2019/002659   |
| Vitoria-Gasteiz           | R0100007D | %27 | 24.840            | 1001111113 1.45143.45200 2019/002660   |
| GUZTIRA/TOTAL             |           |     | 92.000            | 1001111113 1.45143.45200 2019/002657   |

**Bigarrena.-** Dirulaguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da:

- Lehenengoan %75 behin agindu hau emanda.
- Bigarrean gainerako %25a dirulaguntza justifikatu eta gero.

**Segundo.-** El abono de la subvención se hará efectivo en dos pagos:

- El primero por el 75% una vez dictada la presente orden.
- El segundo por el 25% restante, previa justificación de la subvención.

**Hirugarrena.-** Dirulaguntza justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da: batetik, jatorrizko fakturak edo egiaztatutako kopiak eta, bestetik, gauzatutako jardueren gaineko txostena.

**Tercero.-** La justificación de la subvención se realizará mediante la presentación de facturas originales o copias compulsadas, así como la aportación de una memoria relativa a las actividades ejecutadas.

Dokumentuak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 5ean bukatuko da.

El plazo de presentación de la documentación justificativa finalizará el 5 de enero de 2024.

**Laugarrena.-** Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio dirulaguntza hau kudeatzea.

**Cuarto.-** El órgano gestor de la subvención es la Dirección de Patrimonio Cultural.





**Bosgarrena.-** Jarduerak sortutako zabalkundea (iragarkiak, kartelak, txostenak, programak, web orriak, megafonia...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo da, eta hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista bermatuko da.

**Seigarrena.-** Entitate onuradunak xedapen hauek bete behar ditu: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan ezarritako laguntzei eta dirulaguntzei buruzko araubide juridikoa, eta xedapen horretako 50.2 artikuluan zehaztutako betebeharrak. Gainera, eskatutako behar adina informazio eman beharko die Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

**Zazpigarrena.-** Agindu honen bidez onartzen den dirulaguntza bateragarria da beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako emandakoekin, betiere gainfintziaziorik gertatzen ez bada. Gainfintziaziorik egonez gero, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak dagokion kitapen-agindua emango du eta esleitutako dirulaguntza beharrezkoa den zenbatekoraino murriztuko du.

**Zortzigarrena.-** Jakinarazi hau interesdunari, eta adierazi agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezkaiekela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

**Quinto.-** Las actividades de difusión generadas por la actividad (anuncios, carteles, folletos, programas, página web, megafonía...) se realizarán en euskara y castellano, y se garantizará el lenguaje inclusivo y no-sexista.

**Sexto.-** La entidad beneficiaria queda sujeta al régimen jurídico de ayudas y subvenciones previsto en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, al cumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 50.2 de dicha disposición y, en particular, a facilitar cuanta información le fuera requerida por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como por la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economía y por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

**Séptimo.-** La subvención aprobada mediante la presente orden es compatible con cualesquiera otras que pudieran conceder para el mismo fin otras entidades públicas o privadas, siempre que no se produzca sobrefinanciación, en cuyo caso el Consejero de Cultura y Política Lingüística dictará la orden de liquidación correspondiente, minorando el importe de la subvención adjudicada hasta el límite que sea necesario.

**Octavo.-** Notifíquese la presente al interesado o interesada, poniendo en su conocimiento que contra la misma podrá interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Cultura y Política Lingüística, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Fecha en firma digital /Data sinadura digitalean

Izp./Fdo.: BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI  
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA  
CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA